



HAZPARNEKO ZAPATAGINTZAREN HISTORIAREN URRATSETAN: Landerretche & Larre lantegia



ORKEIA

2.zenbakia-2023ko ekaina

Obratzea: ONDAREA , Hazparneko Historia Batzordea:

Beñat Çuburu-Ithorotz
Marie-Françoise Durruty
Txomin Heguy
Xavier Larre
Marie-Jo Vigié

Dosierraren moldaketa: Txomin Heguy

Euskarazko bertsioaren zuzentzailea: Maialen Heguy-Lucu

Miren Larre-Helou eta Maite Larre-Haran anderei gure esker bizienak bihurtzen dizkiegu, beren ikerketa pertsonalen lehen emaitzen erabilpena baita etxeko artxiboetatik hartutako jatorrizko dokumentu batzuen erreprodukzioa haizutu digutelako.

Haien ezinbesteko lankidetzak gabe, ORKEIAren zenbaki honen argitaratzea ezinezkoa izanen zen.

Hazparneko Historia Batzordea ORKEIA dosieren obralari bakarra da Batzordearen kideek dossier hau arta handienarekin idatzi dute eta honen edukiaren egitasuna zaindu. Gure iturri guziak izendatuak dira.

Artxiboetako ikerkuntza ez da nihundik ere bururatua, ORKEIAren zenbaki honen gai nagusia den Landerretche & Larre lantegiaren historia barne.

Gainera, edozein ikerketa ez da behin betiko finkatua; hots, gure ikerkuntzen eta aurkikuntzen arabera, datozen argitalpenetan beharrezkoak izanen diren zehaztasunak eta zuzenketak plazaratuko ditugu.

ORKEIA dossierak librokiko balia daitezke hezkuntza munduan bai eta bitartekaritza kultural zein turistiko sailetan.

Egilearen baimenik gabe, beste edozein ustiapen debekatua da.

Aitzin-solas	4
Landerretche & Larre lantegia: mende bateko ibilbide industrial	5-9
Dibildos karrikan, Landerretche & Larre lantegi berriaren planoa	10
Mekanizazioa 20. mendearen hasieratik	11
Mekanizazioa : kate fabrikazioa	12-13
Komertzial estrategia : merkataritza ibilkariak	14
Komertzial estrategia : publizitatea, erosle soslaiaren ikerketa	15
Administrazio bat biziki profesionala	16
Langile batzuen eleak	17
Langile batzuen eleak - Landerretche & Larre langile auzoaldea	18
Ustiapen pedagogikoa : bide batzuk	19
Artistaren begirada	20
Ondarea, Hazparneko Historia Batzordea : berriak	21
Hazparnen Zapataren Etxe baten aldeko agiria	22

Maintenant avec la semaine de 40 heures il faudra s'arranger.[...] Il faut espérer qu'on ne viendra pas nous troubler. L'esprit de la population paraît être sain mais on ne sait jamais. Il suffit de si peu pour qu'une étincelle parte mettre le feu. Il y a pas mal d'éléments étrangers dans la localité qui jusqu'à présent se sont tenus bien. Maintenant que les lois sont passées, il faut que nous gardions notre calme et nous adapter sur les modifications à apporter.[...] Nous avons beaucoup de travail mais cela durera-t-il ? Car il faudra hausser les prix. C'est inévitable. Nous avons beaucoup de frais à supporter. [...]

Pascaline Landerretche. Ezpeletako koinatuei zuzendutako gutuna. 1936ko ekainaren 20a.

*Ayant reçu de vos services, en application de la loi du 17 Décembre 1941, une notification de fermeture provisoire de notre usine, nous tenons à porter à votre connaissance un certain nombre d'arguments qui vous feront pressentir la possibilité d'une erreur ou d'une injustice dans la mesure qui nous frappe mortellement.**

Emile Larre. Industria Ekoizpenerako Ministroari zuzendutako gutuna.
1942ko irailaren 27a.

* ORKEIaren zenbaki honetan agertzen diren frantsesezko aipuak jatorrizko hizkuntzan atxikiak izan dira.

Hazparnen mende batez iraun duen familia baten ibilbide industrialaren jarraitzea, lantegi horren antolamendu eta teknika bilakaeraren urratsaldi nagusiak deskubritzea, hona ORKEIAREN 2. zenbaki honen gai nagusia.

Izan ere, Landerretche & Larre lantegiari buruzko gure ikerketen lehen emaitzen argitaratzeko gai gara, Larre familiak artoski zaindu dituen enpresaren salbuespeneko artxiboak erabiliz, baita ere Miren Larre-Helouk beti sakontzen ari duen ikerkuntza lanean bermatuz.



Lantegi horren historia hasieratik zerratzea arte, gaurko Dibildos karrikan eraikia izan zen lantegi berriaren eremu diseinua, mekanizazioaren hastapena, kate fabrikazioaren sarrera, administrazio antolakuntza, ekoizpenaren saltzea, gai guzi horiek zorrotasunez aipatuak dira dossier honetan, historiazko balore handia daukaten jatorrizko dokumentu batzuek nasaiki irudiztatzen dituztela.

Erran gabe doa lehen hurbilketa bat proposatu dizuegula, oraindik anitz ekai arakatzeko eta ustiatzeko geratzen baitira. Hazparneko zapatagintzaren iragan industrialaren kontakizuna ahalbide dezakeen ikerkuntza zientifiko zein historiko baten hasieran gaude. Baina Miren Larre-Helou* eta Maite Larre-Haranen* baitezpadako ekarpena baliatuz –horretarako handizki eskertu behar ditugu– Hazparneko zapatagintza lantegien liburua erdi-irekitzen ahal dugu, oinarrizko dokumentuak eskutan. Mende bat pasa, Lapurdiko hiri ttikia itxuratu duen historia horren funski lantzen hasten ahal gara, bakarrik laborantzari itzulia zitzaion Ipar Euskal Herri barnealdeari lotu zaion aurreiritzia deusestatuz. Agian, haien eginmoldeak eta engaiamenduak beste presuna batzuk bultzatuko dituzte han eta hemen altxatuak dituzten artxibo berezien historiazko ikerkuntzaren zerbitzuko ezartzen.

Lehen zenbakiaren edukiari jarraikiz, ustiapen pedagogikoaren eta artista baten begiradaren orriek osatzen dute ORKEIAREN zenbaki hau.

Azkenik, barne eztabaida luze baten ondotik, Hazparneko Historia Batzordea zergatik elkarrekin moldean egituratu dugun azaltzen dugu, eta bestalde, gure gaurko gogoetaren berri argitaratzen dugu, Hazparnen Zapataren Etxe baten aldeko agiria plazaratuz.

*Miren Larre-Helou eta Maite Larre-Haran Landerretche-Larre lantegiaren azken nagusia izan zen Emile Larren alabak dira. Emile Larre eta Pepa Kareaga bere emazteak sei seme ere ukan zituzten.

Jatorria : Jean Landerretche eta Caticha* Amespil


1861ko otsailaren 6an, Iholdin sortu eta bizi zen Jean Landerretche zapatagina Caticha Amespilekin ezkondu zen. Caticha Amespil, Hazparnen zapatagina zen Pierre Amespilen eta ehulea zen Marie Ihitzen alaba zen.

Jean Landerretche eta Caticha Amespil Hazparnen plantatu ziren. 1862ko maiatzaren 15an, Argenterie karrikan den etxe baten jabe egin ziren ; egoitza horretan, haien ateleria antolatu zuten, Landerretche lantegiaren oinarria : **Landerrechtenea** edo **Landerrechtea**.


Ibilbide industrial hori orduan hasi zela arrazoiz baieztatzeko.

Hain zuzen, Jean Landerretche manufaktura, Komertzio, Industria, Magistratura eta Administrazioaren 1863ko urtarilaren 1ko urtekarian zerrendatua da, 2232 orrian, Hazparneko atalean.



Not. : Dabonne, Riton,
Huissier : Etcheverry.
Percepteur : Rousselle.
Chantiers en gros :
Amespil (Jean et Pascal),
Dagniere (Gaston), Dar-
tayet (Jean), Dilarce
(Laurent et Salvator),
Hiriart-Urruty (Jean),
Landerretche (Jean), Lar-
roque (J.), Lissarrague,
Mirabel.
Chiffons en gros : Ma-
rignol.
Cordonniers : Barotier
(J. P.), Choribat (J. P.),
Harguindeguy (J. B.), Har-
riague.
Drapiers et mégisseries : Dey-
heralde, Hiriart (Vie),
Hiriart (Jean), Larroque,
Mirabel.
Epiciers : Choribat (G.),
Domercq (M.), Landale,
Negoubois, Schlegel, Jan-
retche.
Fers : Belleave.
Grains : Larroque.
Libraire : Domercq.
Marquiers et limousins
(fab.) : Amestoy (J. Bie-
tche), Amestoy frères, Sa-
zanne (Martin).
Médecins : Durruty (Hie-
tcheverry), Harriague
(Eug.).



Landerrechtenea. Egun, Bil Xokoa deitzen da. Gaur, etxe horrek medikuntza erradiologia zentro bat aterbetzen du. 1960 urteetan, Jean Larregain apezak kudeatzen zuen zinema bat bazegoen egoitza horretan. ONDAREAREN artxiboak.



1864ko uztailaren 12an, Marie Ihitzek, Pierre Amespilen alargunak, bere alaba Catichari eta bere suhi Jeani, hots Landerretche bikote gazteari uzten dio : **"le fonds de commerce qu'elle exploite comme fabricante de chaussures dans la maison Bidegaraya (....) l'achalandage qui y est attaché, les ustensiles, marchandises, table et meubles servant et attachés à son exploitation."** Horrek frogatzen du bere senarra zendu eta, Marie Ihitzek zapata langintza segitu zuela, familiako enpresaren jarraipena segurtatuz bere gizaldiaren eta ondokoaren artean.




Notario aktaren zati bat. Negozio funtsaren eskualdatzea Marie Ihitz, Pierre Amespil alargunaren eta Jean Landerretche – Caticha Amespil bikotearen artean. Larre familiaren artxiboak.

1896an, bere senarra Jean zendu zenean, Catichak, 62 urte zituela, **Vve J. Landerretche** lantegiaren zuzendaritza bere gain hartu zuen ; zazpi urte berantago, 1903an, bere alaba Pascalinen senarra, hots bere suhia zen Jean-Pierre Larre, Ezpeletan sortua eta zurragilea, partzuer bezala hartu zuen. Orduan, enpresa **Vve Landerretche et Cie** izendatu zuten.



Caticha Amespil-Landerretche Larre familiaren artxiboak.



Caticha Landerretche eta bere suhi Jean-Pierre Larren arteko partzuergoaren iragarki abisua. Larre familiaren artxiboak.

*Caticharen izena bere jatorrizko ortografian atxikia izan da.

1913an, Caticha hil zenean, honen parteak enpresari ekarri zizkion Etienne bere seme ezkongabeak. Orduan, lantegiak **Landerretche & Larre** izenburua hartu zuen. Etienne 1919an zendu zen, parteak bere arreba Pascalineri eman zizkiola 1917an eginikako testamentuaren arabera.



Larre familiaren artxiboak.

Jean eta Caticha Landerretchek lantegia sortu zuten; Catichak, alargundu zenean, segida bere gain hartu zuen, alaba Pascalineri negozioa transmititu aitzin. Edozein izanik ere enpresaren izenburua bere iraupen osoan, Hazpandarrentzat beti **Landerrechtea** izan zen.

Enpresaren garapena : Pascaline Landerretche eta Jean-Pierre Larren obra

1920 urteetan, Jean-Pierre Larre eta Pascaline Landerretche bikoteak eman zion bultzadari esker, enpresa ofiziale jarduera batetik ekoizpen industrialera aldatu zen.

Horren froga dugu lantegia egoitza berri eta zabal batean kokatu zela (1500 m² nonbait han) Cantoy bidean (gaur egun Dibildos karrikan).



Jean-Pierre Larre eta Pascaline Landerretche. Larre familiaren artxiboak.

Antolaketa hori mekanizazioaren emendatzeari ere lotua izan zen.



Landerretche & Larre lantegiaren egoitza berria. Paper idazpurudunaren zati bat.
Larre familiaren artxiboak.

Beste seinale batek ere azpimarratu du lantegiak orduan ezagutu zuen bihurtzea eta garapena: Baionako Komertzio Auzitegiaren aktategian **Inusa** sormarka babestua izan zen. Bere iraupen guzian, marka hori **Landerretche & Larre** enpresaren izenpedura izanen zen.



Pascalinek bere amaren zorte bera ezagutu zuen. Jean-Pierre Larre bere senarra 1929an zendu zen, 56 urte zituela. Pascalinek, 59 urteekin, bere amak bezala, enpresaren segida beregain hartu zuen, Emile bere 25 urteko semeari ofizioa irakatsiz.

Emazteek -Caticha, Pascaline- enpresaren jarraipenari doakionez bete zuten papel premiatsua azpimarratzekoa da.



Francis Jammes

"J'ai ouï dire qu'elle (la mère d'Adrien) et sa sœur Madame Larre, marraine d'Adrien, - dont le mari si sympathique s'en est allé trop tôt à notre gré - ont montré des aptitudes singulières pour comprendre et régler les rouages de l'industrie".

Francis Jammes poetak Pascaline Landerretcheri egin zion zehar omenaldia, haren iloba Adrien Amespilen ezteien karietara.
BNF/GALLICA. Francis Jammes elkartearen agerkaria 22. zbk. 1994ko abendua.

1930 urteetan enpresaren garapena

Bigarren Gerla mundialaren aitzineko hamarkadan lantegiak garapen nabarmena ezagutu zuen armadak egin zizkion erosketa manuei esker.

1937ko agorrilan, lehen gerla eskaera bat erdiesten du :

"la fourniture mensuelle de 10 000 paires de brodequins de repos".



Garai horretan, **Landerretchea** enpresaren langile kopurua handizki emendatu zen: 85 langile 1933an, 130 nonbait han 1938an.

Urte horretan, Emile Larre enpresaren buru bilakatu zen.



Emile Larre.
Larre familiaren artxiboak.

1939
eta 1940an,
armadaren
eskaera
desberdinak.
Larre familiaren
artxiboak.



Landerretche & Larre lantegiaren langile kopuruaren bilakaera :

	1933	1934	1935	1936	1937	1938	1939	1940	1941	1942
Langileak	78	78	78	91	98	120	108	107	100	80
Enplegatuak	7	7	7	8	9	11	10	10	10	10
Orotara	85	85	85	99	107	131	119	117	110	90

Garapen hori ikusten da ere negozio zenbakietan (frankoetan, inposak ordaindu aitzin):

1933	1934	1935	1936	1937
2 492 767	2 201 811	2 402 224	2 918 673	4 065 217
1938	1939	1940	1941	1942
4 483 519	4 763 235	6 470 444	6 655 196	6 013 796


Azkenik enpresaren hazkunde hori neurtzen da ere bere balorearen emendatzeari begiratu; hona LECART *expertises* ikergelak egin zituen balioztapenen emaitzak :

- 1934ko urtarrilaren 1a : 1 212 935 franko (bastimenduak eta tresneria) ;
- 1938ko ekainaren 1a : 2 172 525 franko (bastimenduak eta tresneria) ;
- 1943ko uztailaren 1a: 5 549 630 franko (bastimenduak eta tresneria).


Lantegiaren zerratzea alemanen okupazio garaian

Alemanen okupazio garain, nahiz Emile Larrek Industri Ekoizpenerako Ministroari protesta azkar bat bidali (ikus hemen gutunaren zati bat), 1942tik hara Landerretche & Larre lantegiak hesteko manua ukan zuen Hazparneko beste lantegi batzuek bezala (Etchevers, Haulon).

Dudarik gabe zerratze horrek Landerretche & Larre lantegiaren geroa handizki trabatu zuen. Alabaina, 1944an berriz ireki zenean, gerla aitzin zuen hedadura ez zuen berreskuratu. Ondoko hamarkadan, hirurogei langileen kopurua ez zuen gainditu.



Landerretche-Larre lantegiaren zerratze-manuaren ondotik, Emile Larrek 1942ko irailaren 27an idatzi zuen protesta gutunaren zati bat. Larre familiaren artxiboak.




Lantegiaren azken jarduera garaia

Uztartze desberdinak entseatu ondoren, besteak beste Belbis jaunarekin, Emile Larre Biarritzeko Gaston Lasserrekin elkartu zen. Ondorioz, 1956ko otsailan, **Larre & Lasserre** enpresa sortu zuten. Akordioaren hitzen arabera, Gaston Lasserre kudeatzaile izendatua izan zen.

Larruzko eta krepetzko zola zuten **Inusa** markako zapata klasikoak bazterrera utziak izan ziren. Zola bulkanizatu zapatak egiten hasi ziren (teknika berri hori Italian ongi garatua zen), **Vulcalux** markaz saldu zituztenak.

Zorigaitzez, modernizazio entsegu horrek porrot egin zuen. Sozietatea 1962ko abenduaren 31an desegina izan zen eta ondorioz legezko likidazioan jarria.



Emile Larre eta Gaston Lasserre elkartze kontratuaren zati bat. Larre familiaren artxiboak.

Bizkitartean, Landerretche & Larre abentura industrialia ezagutu zuen egoitza enblematikoak ez zuen Hazparneko zapatagintza industriari lotua zuen bokazioa segidan bere gisa utzi. Hain zuzen, bastimenduaren parte batean, 1960tik 1987ra, Louis St Estebenek zuzendu zuen takoi fabrika kokatu zen. Gaur egun, eraikinak saltegi eta bizitegi batzuk aterbetzen ditu.

Landerretche & Larre lantegiaren historia: lauki sinoptikoa

Urtea	Landerretche & Larre lantegiaren historia	Familiaren historia
		Pierre Amespil (zapatagina 1799-1860) - Marie Ihitz (ehulea 1800-1875) Hazpamen
1861		Caticha Amespil , Pierre Amespil eta Marie Ihitz en alabaren ezkontza Jean Landerretche kin, Iholdiko zapatagina
1862	Jean Landerretche - Caticha Amespil - Landerretche bikoteak Landerretche etxea erosi zuen Hazpamen. Jean Landerretche zapata lantegiaren hasiera	
1864	Marie Ihitz , Vve Pierre Amespilek bere negozio funtsa bere alaba Caticha Amespil - Landerretcheri eta suhi Jean Landerretcheri utzi zien	
1896	Caticha Amespil - Landerretche lantegiaren zuzendaritza bere gain hartu zuen. Vve J. Landerretche izenarekilako lantegia bilakatu zen	Jean Landerretchen heriotza
1903	Caticha Amespil - Landerretche Jean-Pierre Larre bere suhiarekin elkartu zen. Vve Landerretche et Cie lantegiaren hasiera	Pascaline Landerretche - Caticha Amespil - Landerretchen alaba- eta Jean-Pierre Larren arteko ezkontza
1913	Jean-Pierre Larrek eta Pascaline Landerretche - Larre bere emazteak lantegiaren zuzendaritza beren gain hartu zuten. Landerretche & Larre lantegia bilakatu zen	Caticha Amespil - Landerretchen heriotza
1924-1925	Landerretche & Larre lantegiaren lekuz aldatzea Cantoy bideko egoitza berrietara (gaur egun Dibildos karrika)	
1929	Pascaline Landerretche-Larre lantegiaren zuzendaritza bere gain hartu zuen. Bere seme Emile Larreri ofizioa irakatsi zion	Jean-Pierre Larren heriotza
1938	Emile Larrek lantegiaren zuzendaritza bere gain hartu zuen	
1942	Landerretche & Larre lantegiak hesteko manua jasan zuen (alemanen okupazio denboran)	
1944	Landerretche & Larre berriz ireki zen	
1956	Emile Larre-Gaston Lasserren arteko elkartzea Etablissements Larre & Lasserre lantegiaren sortzea	
1963	Etablissements Larre & Lasserre lantegiaren legezko likidazioa	




Landerretche & Larre lantegia.
Ondarea Historia
Batzordearen
artxiboak.

Landerretche & Larre lantegiaren egoitza berria : antolaketa berritzaile eta egokia

1920 urteetan, Pascaline Landerretche eta bere senarra Jean-Pierre Larrek eman zion bultzadari esker, **Landerretche & Larre** lantegia Cantoy bidean zegoen eremu batera – gaur egun Dibildos karrika – lekuz aldatu zen. Eraikuntza zabal hori zapataren moldakuntzak galdegiten dituen aldi desberdinei oso ongi egokitua zen (ikus behean).

Gainera, Landerrechtea eta Hazparneko lantegi gehienek ez bezala, estairik gabeko lantegia zen. Ondorioz, lanaren antolakuntza teknikoa handizki errestua zen.



Landerretche & Larre lantegi berriaren planoa.
Larre familiaren artxiboak.



Zapataren moldakuntza industrialaren aldi nagusiak :



1924an, United Shoe Machinery Company de France* sozietateak, Landerretche & Larre lantegiarentzat egin zuen planoa.
Larre familiaren artxiboak.

MOZTEA	Trintxetarekin (eskuz) edo zati-mozkailuarekin (makinarekin) oinetako-gainaren ekai guzien pikatzea	PREPARAKUNTZA
JUNTADURAREN PREPARAKUNTZA	Juntadura egin aitzin lan desberdinak (mehatzea, azpildurak egitea, zilatzea)	
JUNTADURA	Zati desberdinen mihiztatzea eta apaintzea oinetako-gainaren moldatzeko	
AZPIKO ZATIEN PREPARAKUNTZA	Azpiko zatien tinkagailuz moztea eta lan desberdinak muntaketa aitzin	
MUNTAKETA	Zapataren gaina biribiltzea zurezko, metalezko edo plastikozko orkeia baten gainean	MOLDAKUNTZA
MIHIZTATZEA	Oinetako-gaina zolari lotzea hariz (josia), lekedarekin (itsatsia) edo tatxetekin (iltzatua)	
ZAPATA ZOLAREN AMAITZEA	Zapata zolari azken itxura ematea (adarakuntza) orkeia kendu aintzin	DESPEDITZEA
DESPEDITZEA	Garbitzea, egiaztatzea, azken begirada zapatar itxura hoberena emateko paketatu aintzin	

Zentzuzko antolaketa bat

Gain eta bazter honetan dauden dokumentuak aztertuz, Landerretche & Larre lantegiaren langune desberdinak zapataren moldakuntzaren aldi ezberdinei modu koherente batean egokituak zirela konturatzen gara.


Planoaren ezkerrealdean preparakuntzarako lan eremuak aurkitzen ziren, beheko eskuinaldean, muntaketa eta mihiztatzea egiten ziren guneak, gaineko eskuinaldean despeditzea obratzen zen tokia.

Ezkerrealdean, merkantzien sarrera ikusten da, eskuinaldean, ekoizpen amaituen bidaltzegunea.

*1901tik, Estatu Batuetako Bostoneko "The International Button Hole Sewing Machine Company" sozietatearen ordezkaria Frantzian.

20. mende hasieratik, makina batzuk akuran


1900 urteen hastapenetik, Vve Landerretche et Cie lantegiak United Shoe Machinery Company Sozietateari makina batzuk alokatu zituen. Hemen agertzen den kontratua 1909an « botoi-ziloen egiteko makina » baten alokatzearena da. Garai horretan eta lehenago, beste makina batzuk hain segur eskuratuak izan ziren ; 1909ko otsailaren 7-8ko *L'Indépendant des Basses-Pyrénées* kazetak hori adieraztera ematen du Landerretche lantegian izan zen lan istripu baten berriaren zabaltzearen kariatara.



United Shoe Machinery Company Sozietateari botoi-ziloen egiteko makina baten alokatze kontratua. Larre familiaren artxiboak.



Gertakari dorpe hori kondatzen duen artikulua horrek interes handi dauka, orduko Landerretche lantegiaren egoerari buruzko xehetasun batzuk agertzen baititu denbora berean :
« gure lantegi inportanteenetako bat »
« tresneria perfektionatu eta oso bat » daukana ;
« argindarrak ibilarazten dituen makinak ».




Beste alokatze kontratu batzuk. Zatiak. Larre familiaren artxiboak.

1918an, hona alokatuak izan ziren 14 makinaren zerrenda :

- Machine à graver les semelles ;
- Machine à fermer les gravures des semelles ;
- Machine à rafraîchir les coutures du Veldtschoen ;
- Machine à égaliser les trépointes Veldtschoen ;
- Machine à rafraîchir les coutures et enlever les semences ;
- Machine à battre les trépointes ;
- Machine rotative à battre et rafraîchir après montage ;
- Machine n°4 à estamper les talons ;
- Machine Lightning à poser les talons ;
- Machine Mckay à fraiser et ébourrer les talons ;
- Machine Mckay à affûter les couteaux ;
- Machine « modèle B » à gouger les talons au moteur ;
- Machine « Consolidated » à monter les cousu-machine et le cloué ;
- Machine « Modèle D » à afficher les semelles, avec sa meule .

Azpirarratzekoa da Landerretche & Larre lantegiak makina horiek apurka erosi zituela; frogatzat daukagu Emile Larrek 1942ko irailaren 27an ekoipen Industrialaren Ministroari bidali zion gutunaren zati hau :

« 17 ans de présence ; nous possédons l'outillage le plus complet et le plus moderne de la localité, outillage nous appartenant entièrement à l'endroit de



Larre familiaren artxiboak.

LISTE DES MACHINES DÉPOSÉES EN LOYER PAR M. LANDERRETCHÉ & CIE									
N°	DATE	DESCRIPTION DE LA MACHINE	POUR	POUR	POUR	POUR	POUR	POUR	POUR
1000	1910	MACHINE N° 1 à graver les semelles	1000	1000	1000	1000	1000	1000	1000
1001	1910	MACHINE N° 2 à fermer les gravures des semelles	1000	1000	1000	1000	1000	1000	1000
1002	1910	MACHINE N° 3 à rafraîchir les coutures du Veldtschoen	1000	1000	1000	1000	1000	1000	1000
1003	1910	MACHINE N° 4 à égaliser les trépointes Veldtschoen	1000	1000	1000	1000	1000	1000	1000
1004	1910	MACHINE N° 5 à rafraîchir les coutures et enlever les semences	1000	1000	1000	1000	1000	1000	1000
1005	1910	MACHINE N° 6 à battre les trépointes	1000	1000	1000	1000	1000	1000	1000
1006	1910	MACHINE N° 7 rotative à battre et rafraîchir après montage	1000	1000	1000	1000	1000	1000	1000
1007	1910	MACHINE N° 8 n°4 à estamper les talons	1000	1000	1000	1000	1000	1000	1000
1008	1910	MACHINE N° 9 Lightning à poser les talons	1000	1000	1000	1000	1000	1000	1000
1009	1910	MACHINE N° 10 Mckay à fraiser et ébourrer les talons	1000	1000	1000	1000	1000	1000	1000
1010	1910	MACHINE N° 11 Mckay à affûter les couteaux	1000	1000	1000	1000	1000	1000	1000
1011	1910	MACHINE N° 12 « modèle B » à gouger les talons au moteur	1000	1000	1000	1000	1000	1000	1000
1012	1910	MACHINE N° 13 « Consolidated » à monter les cousu-machine et le cloué	1000	1000	1000	1000	1000	1000	1000
1013	1910	MACHINE N° 14 « Modèle D » à afficher les semelles, avec sa meule	1000	1000	1000	1000	1000	1000	1000

Landerretche & Larre lantegian alokatuak ziren 30 makinaren zerrenda. 1928ko dokumentua. Larre familiaren artxiboak.

Emile Larrek kate fabrikazioa antolatzen du

1937ko urte hastapenean, Emile Larre zapaten moldatzeko kate fabrikazioari interesatu zen. Horretarako, hilabete batzuez, eztabaida zorrotzak izan zituen Paul Dailloux Etxearekin, hauek saltzen zuten EDA tresnaren erdiesteko ahalmena eta interesa neurtzeko. Paul Dailloux Etxeak bideratu konparaketari esker, EDA sistema horrek 8 orenez 400 zapata pare ekoitz zezakeen (370-380 pareren orde), langile gutiagorekin eta eguneroko gastuak murriztuz.


Trukatzeak hamarka izan ondoren, pikoan ezartzeak eta bisitak, Emile Larrek «8 orenez 400 zapata pare egiteko EDA tresna» bat manatu zuen. Makinaren lekuan ezartzea, muntaketa eta martxan ezartzea 76 250 franko gostatu zen.



Dailloux Etxearen aurkezpen agerkaria. Larre familiaren artxiboak.



EDA tresnaren eskuratzeko agiria. Larre familiaren artxiboak.




Larre familiaren artxiboak.

Emile Larreri tresnaren lekuan ezartzeko (agorrilaren amaierako) aurrerabide bat bidalia izan zitzaion 1937ko uztailan instrukzio zehatz batzuekin instalaketa aitzin :

1/ Finir de fabrication toutes les chaussures en cours pour repartir à zéro.

2/ Préparer une bonne avance de tiges et semelles pour la remise en route.



Landerretxe-Larre lantegian EDA tresna instalatzeko planoak. Larre familiaren artxiboak.

3/ Avant arrêt, nettoyer les machines et noter celles qui pourraient avoir besoin d'une petite réparation pour la faire. En les désaccouplant des transmissions, attacher leurs poulies avec.

[...]

5/ Le camion viendra décharger la marchandise le lundi 23 à 7 heures et nous serions là pour le recevoir.

6/ Vous aurez dû vous prémunir de :

- 5 sacs environ de ciment à prise rapide;
- de 2 maçons pour scellements;
- 6 à 8 personnes (aides) pour nous aider au montage et placement des machines;
- avoir sous la main 1 boîte ou 2 de graisse et 6 litres d'huile très épaisse pour boîte de vitesse ou pont arrière.

7/ Dire au mécanicien du pays qu'en cas de besoin, il ait ses bouteilles d'oxygène et d'acétylène pour soudures garnies.

Instrukzioak langileentzat makina abiarazteko :

-On fera venir la 1ère demi-journée du lundi 30 le personnel jusqu'à la machine à graver-brocher.

-Le personnel des PP (Petit Point) ne viendra qu'en fin de journée et le reste le lendemain.

*Ets Paul Dailloux 5, Boulevard de La Chapelle, Paris (Xe)

EDA sistema : fabrikatze osoa ahalbidetzen zuen katea

Bazterrean ikusten den dokumentuak argiki frogatzen du Landerretche & Larrek erosi zuen kate fabrikazio sistemari esker zapataren moldaketa osoa hastetik buru egin zitekeela. Zehazten du ere zenbat langile behar zen lanpostu bakoitzeko baita ofizio* desberdinen izenak.

ÉTABL. PAUL DAILLOUX
M/LA 2716
Date n° 5 1/7/37

MR. LANDERRETCHÉ & LARRE
INSTALLATION DE 400 Paires CHAUSSURES
STATUTS DIVERS A JAVIER LARRE ET.

N°	Désignation	Personnel	Observations
1	Mise en œuvre Remplacement formes Mise types dans humidificateur Distribution fournitures	1 homme	
2/3	Affichage pressière Pose contreforts bouts durs Pointes ad.	2 aides	
4	P.C. et aide Chaus.	1 homme	1 homme peut faire 300 paires 20 et 250 Chaus. (Bouche et point)
5	Opération de lavage de l'eau à l'eau	1 homme	
6	Chaus.	1 homme	
7	Rotativage Pose caudrons et remplissage cartes pour patins	1 homme	Possibilité offre avec un bon rotativage, le vêtre étant particulièrement actif.
8	Place libre.		
9	Affichage patin		
10	Gleuage patin dans le cas de mise au tripoint, suivant le genre d'article.	1 homme	Possibilité d'être donné un supplément que l'on fait un peu de place.
11	Gardage mise colle	1 aide	Pour le remplissage des pour la tripointe classe craquelée.
12	Affichage semelle		
13	Dreuchage	2 personnes	
14	Ouvrière gravure		

Larre familiaren artxiboak.

ÉTABL. PAUL DAILLOUX
M/LA 2716
Date n° 6 1/7/37

N°	Désignation	Personnel	Observations
17	Couture PP	2 personnes	Poste pris chargé.
18	Recouvrement semelle	1 aide	Temps disponible
19	Perçure gravure Austique	1 personne	
20	Gleuage semelle (dure) Pose talon à travers la forme Bague Louis XV Verrage semelle	1 personne	Une fois finie de fait du talons.
21	Gorges et d'axe Incrustation etc.	1 personne	Temps disponible suivant saison.
22	Fraise lisse	1 homme	Un peu juste sur fraise rapide. On peut trépaner à travers suivant l'habileté du fraiseur.
23	Béilage forme	1 homme	Temps disponible
24	Talonnage	1 homme	Peut être aidé par un déboucheur. Pas besoin de machine à poser le talon semelle.
25	Fraisage bague - semelle Verrage talon	1 homme	Peut suffire du fait du talons bague et Louis XV mélange.
26	Couleur lisse	1 femme et	Peut faire déboucheur
27	Déformé lisse	1 homme	
28	Drapage talon	1 homme ou femme	Temps disponible Peut mettre couleur semelle
29	Verrage semelle	1 homme	ATTENTION que le semelle chaussure permet de faire un 2 de rendement très supé- rieur.
30	Gorges ponçage	1 homme	
31	Déformé semelle	1 homme	
32	Pose talon		(finition)

ÉTABL. PAUL DAILLOUX
M/LA 2716
Date n° 7 1/7/37


N°	Désignation	Personnel	Observations
44	Ravage clous Collage pressière Recouvrement doublures Pielon Nettoyage Batterie etc..... Confection boîtes lisse en boîtes	5 personnes environ	Travail dur et long.

Lehena Hazparnen



Larre.familiaren artxiboak.

Paul Dailloux Etxearen 1937ko ekainaren 17ko letra zati hau irakurtzearekin, pentsa daiteke Hazparnen Emile Larre molde horretan tresnatu izan zen lehena izan zela.



Instalaketa kausitua


EDA kate fabrikazio tresnaren lekuan ezartzea arras ongi iragan zela pentsa daiteke: "Je tiens personnellement à vous renouveler mes très sincères remerciements tant pour votre bon accueil personnel que pour celui de vos collaborateurs et ouvriers au cours de l'installation" dio Guegan Jaunak, Paul Dailloux Etxeko ingeniariak, 1937ko irailaren 12an eskuz idatzitako gutunean.

Guegan jaunaren letra. Larre familiaren artxiboak.



*ORKEIAren ale berezi bat eginen dugu zapatagintzaren industriari lotuak diren ofizio desberdinen azaltzeko.

Landerretche & Larre lantegiak Hexagono guzian eta haratago saltzen zuen

Landerretche & Larre lantegiaren karta eskutan, merkataritza ibilkari asko Frantzia guzian ibiltzen ziren.






Larre. familiaren artxiboak.



Bigarren Gerla mundialaren aitzineko hamarkadan, lantegiaren garapen garrantzitsuen garaian, Landerretche & Larre enpresa anitz galdatua zen.

Larre familiaren artxiboak.

Garai hartan, Landerretche & Larre lantegiak Frantzia guzian saltzen zuen, Afrika Iparraldean (Algerian, orduan frantses kolonia zena, Tunisian...) baita ere Madagascar, Réunion, Maurice uharteetan...



Dokumentu honi esker merkataritza ibilkariak eskuratzen zuten lansariaren berri daukagu. Letraren amaieran irakur daiteke :
"COMMISSION: je note qu'elle sera de 5% et vous en remercie".

Larre familiaren artxiboak.

Bere karta eman baino lehen, Landerretche & Larre lantegiak hautagaien berri eskuratzen zuen agentzia berezitu baten bidez: Agence Wys Muller & Cie, renseignements commerciaux, recouvrements, Paris, 51 rue Etienne-Marcel.
Hona txosten baten zatia :



Larre familiaren artxiboak.

"X, âgé de 28 à 30 ans ; marié, père de famille, a fixé son domicile, il y a seulement quelques mois, au ... à Paris dans un appartement de 4 à 5 000 frs de loyer annuel à son nom. Le demandé exerce la profession de représentant en chaussures. Il produit bonne impression, mais sa situation n'est pas bien connue dans l'entourage et malgré nos diverses démarches nous n'avons pu établir ses antécédents. Dans ces conditions nos informateurs sans déconseiller une entrée en relation estiment cependant préférable de demander quelques références avant d'utiliser les services de l'intéressé".

Publizitatea

Bere ekoizpenaren saltzeko, Landerretche & Larre lantegiak merkataritza ibilkari sare eder bat bazuen. Baina, erregularki, prentsa idatzian iragarkiak ere zabaltzen zituen.



1947ko ekainaren 17an,
Les échos kazetan
agertu iragarkia.





1957ko apirilako *La référence du détaillant* katalogoan, iragarki orri oso bat aurkitzen da Larre & Lasserre lantegiko Vulcalux markako zapaten aipamena egiten duena. Begira lantegiaren itxura gainetik aurkeztua. Behere honetan, ikusten da Hazparneko beste lantegi batzuek ere beren ekoizpenaren promozioa egiten dutela.



Larre familiaren artxiboak.

Bezero soslaiaz ikerketa

Dokumentu honek adierazten du Larre & Lasserre lantegiko buruzagien griña, merkaturatu aitzin kolekzio berrietaz bezeroen ikusmoldea jakiteko nahikaria. Horretarako, erosdun izan zitekeen bezero batzuei gutun bat eta promoziorako erakusgai batzuk bidaliak izan zitzaizkien.



Larre familiaren artxiboak.

Administrazio antolakuntza zorrotz bat


Garai hartan, ez zen ordinagailurik lantegietan baina lanaldi guziak xeheki apuntatuak ziren «jarraipen orri» batzuetan.



Ekoizpenaren jarraipen fitxak. Larre familiaren artxiboak.




Erosketa guziak markatuak, ekoizpen liburuak eguneratuak, lantegien erregistroak, kostu prezioen kalkulatzeko kaierak, bezeroen fitxategiak, merkataritza ibilkarien sarea... lantegiaren antolakuntza maila adierazten dute.



Erregistroak orotarik. Inbentario kaieren orri batzuk. Prezioen fitxak. Larre familiaren artxiboak.

Larre & Lasserre lantegiaren bezeroen kutxa. Larre familiaren artxiboak.



Komunikaziorako dokumentuak orotarik. Larre familiaren artxiboak.

Komunikazio betebeharrak guztiak paperez eginak ziren: izari desberdinetako gutun paperak, gutun azalak, kartak, etiketak...

Hilabete sariak hilabeteka ordainduak izan ziren 1942ko otsailetik hara (ordu arte, ordainketa astero egiten zen). Hilabete sarien kaierak diru aitzinatze sistema erabiltzen zutela adierazten dute.



Hilabete sari kaier zati bat. Diru aitzinatze fitxa. Larre familiaren artxiboak.



Mayi Lecumberryren lekukotasuna

Je n'ai pas beaucoup travaillé chez Larre. J'y suis entrée, en 1953 à 17 ans.... J'étais remplieuse, et je travaillais aussi au collage. Nous n'étions pas beaucoup, alors je faisais plusieurs postes.

Avec moi, il y avait Aña Lataillade (la mère de Jeannot) qui était remplieuse à la main (il n'y avait pas de machines), Félicie Detchart et Mayi Etchepare née Fagalde. Le père de Mayi Fagalde était contremaître à la coupe. J'ai travaillé aussi au perforage...

Je ne sais pas trop pourquoi l'usine a fermé mais il n'y avait pas d'évolution. Pas de nouvelles machines et celles existantes étaient vieilles, comme celle à perforer. Il y avait moins de représentants...

Par contre, l'usine était très bien conçue. Elle était en U. Les peausseries rentraient d'un côté, et tout au bout de la chaîne, sans monter ou descendre d'escaliers, les boîtes ressortaient à la finition.

Il y avait une très bonne ambiance, c'était très familial. On apportait des gâteaux faits à la maison qu'on se partageait. De plus, en face de la maison Larre, se trouvait le bar-restaurant Lacabaratzenea. Comme certains ouvriers habitaient loin, on y réchauffait leur gamelle et fournissait la soupe.



Ondarea Historia Batzordearen artxiboak.

Langileen "jantokia"

Bidegarai-Berria etxea zen, berantago **Arotza** deitzen zena. Jean Lissar karrikan zen, Landerretche & Larre lantegiaren ondoan.

Ostatua ezker aldean zen, janari saltegia eskuinaldean. Haramboure familiak kudeatzen zuen, honek Lacabaratz anderearen segida hartu zuela (orduan etxea **Lacabaratzenea** deitzen zen).

Marcel Ithurbururen lekukotasuna

J'ai commencé comme ouvrier spécialisé à 15 ans... J'ai débuté comme colleur pour mettre les semelles aux chaussures - j'en mettais autant sur le tablier que sur les chaussures! - Puis comme j'étais grand, j'ai appris le montage car les machines étaient hautes et je suis resté toujours monteur.

Une très bonne ambiance régnait chez Larre ; en effet, les ouvriers qui mangeaient à la gamelle chez Haramboure, en face, achetaient et buvaient du vin, si bien que jusqu'à 15 H 30 environ, tous les jours, certains incriminaient les machines qui ne marchaient pas... et n'arrivaient pas à travailler! Puis l'usine a commencé à décliner... Tout le monde faisait de la bonne chaussure. Ce fut le début de la fabrication synthétique et la concurrence notamment de la Chine qui fabriquaient des chaussures aussi bien faites, mais bien moins chères.

16 eta 17 orrialdeetako lau lekukotasunak Ondarea Hazparneko Historia Batzordeko kideek bilduak dira. Ondarea Hazparneko Historia Batzordea horien jabe da.

Mayi Lecumberry: 2023ko martxoaren 21an - Marcel Iturburu: 2023ko martxoaren 31an -

Charlotte Bidart: 2020 urte ondarrean. Beñat St Esteben: 2020ko irailaren 28an.

Galdezkatuak izan diren presunak frantsesez mintzatu dira eta hoieneleak diren bezala atxikiak izan dira.

Charlotte Bidarten lekukotasuna

A l'époque - dans les années 50 - il y en avait une dizaine qui travaillait à la coupe; après il y avait la piquêre, les femmes, il y en avait peut-être une vingtaine, les pareuses, les remplieuses et les messieurs qui cousaient le haut et le bas et puis il y avait l'expédition; je travaillais un peu à l'expédition, envoyais les colis, cela complétait le travail de bureau, on attendait qu'il y ait une dizaine, une quinzaine de colis pour envoyer...

L'usine était très bien faite, ça commençait par la coupe et tout le tour comme ça, c'était en U et puis ça se terminait par l'expédition, c'était une usine qui était très bien conçue pour travailler à la chaussure...


Beñat St Estebenen* lekukotasuna

Otto Louis -Louis St Esteben - était ébéniste...Quand il a décidé de faire son usine, il lui fallait d'abord trouver un lieu pour faire, pour envisager ses créations; il avait trouvé l'usine Landerretche & Larre qui avait été je crois une des premières sinon la première à fermer à Hasparren; il avait fait un *tratu*-un arrangement- avec la famille Larre pour le loyer évidemment, c'était une très grande usine...

Dans un un premier temps, il avait commencé chez lui à Elixabeherea, c'est là-bas qu'il avait commencé avec deux ou trois machines, des toupies, c'est-à-dire des machines de menuisier, c'est là-bas qu'il avait commencé à faire les premiers talons en bois et après en ayant su qu'il y avait cette usine qui était libre, il s'était arrangé avec la famille Larre pour venir là; dans un premier temps c'était que du bois et ensuite était venue la période des machines à injecter du plastique...

Landerretche & Larre langile auzoaldea**

Dibildos karrikan egin zuten lantegi egoitza berriarekin batera, Jean Pierre Larrek eta Pascaline Landerretche-Larre bere emazteak lantegiaren ondoan langileentzat bizitegi batzuk eraiki zituzten. Hazparneko lau langile auzoaldeetarik bat da.



Gainean, Landerretche & Larre langileen egoitzen planoak. Bazter honetan, lehen planoan, Landerretche & Larre langileen egoitza; Bigarren planoan, lantegi ohiaren egoitza. Planoak: Larre familiaren artxiboak. Argazkia: Ondarea Historia Batzordearen artxiboak.

* Beñat St Esteben Larre & Lasserre lantegiaren parte batean takoi fabrika kokatu zuen Louis St Estebenen iloba da.

** Hazparneko langile auzoaldean ikerketa sakon bat egitea beharrezkoa da.

Gai hori ORKEIaren geroko zenbaki baten lema nagusia izango litzateke.

Hazparneko plano batean kokatu ezazu:

- Landerrechtenea edo Landerrechtea, Landerrechtea & Larre lantegiaren hastapena aterbetu zuen eraikina;
- 1924-1925 eraikia izan zen Landerretche & Larre lantegiaren egoitza berria.



Landerretche & Larre lantegiaren historian enpresaren jarraipena segurtatzeko bi emazteek papel garrantzitsua ukan zuten: horien izenak aipa itzazu.



Kronologikoki ordena itzazu Landerretche & Larre lantegiaren izen desberdinak :

Vve Landerretche et Cie - Etablissements Larre & Lasserre - Vve J. Landerretche - Jean Landerretche - Landerretche & Larre




Historian edozein izanik ere Landerretche & Larre lantegiaren izendapena, Hazpandarrek nola izendatzen zuten?



10. orrialdeko dokumentuak erabiliz, 1924-1925 urteetan eraikia izan zen Landerretche & Larre lantegiaren plano sinplifikatu bat marraz ezazu. Zure planoan kokatu itzazu zapataren fabrikatzeko beharrezkoak ziren atelier gune nagusiak.



Lantegi horrek ez zuen estairik eta alfabetoaren hizki baten itxura zeukan. Zein hizki?



Mekanizazioaren hasieran, Landerretche & Larre lantegiak makina anitz alokatu zituen. Zer desberdintasun egiten duzu makina baten alokatzearen eta erostearen artean?



1937an, Emile Larrek zapatak katean moldatzeko makina bat erosi zuen. Zer izen zeukan makina horrek? Interneten aurki dezakezun beste dokumentu batzuen laguntzaz, nola azaldu dezakezu zer ote den kate fabrikazioa? Zein dira lan antolaketa horren abantailak eta eragozpenak?



Landerretche & Larre lantegiak egiten zituen zapatak erresuma desberdinetan saltzen zituen. Zein herrialdeetan? Nor arduratzen zen salmenta horietaz?



Fabrikazioaren jarraipena, kudeaketa, lantegia baten administrazioa bulegoetan lan egiten duten enplegatu batzuen gain da. Dossier honen 15. orrialdean, Landerretche & Larre lantegiaren garaian nola eta zein tresnekin lan horiek egiten ziren aurkituko duzu. Aldera ezazu gaur egungo enpresa munduarekin.



Mumbaiko karriketan nabila
begiak orori so
barneko bake bila
Gorputza osoki unatua
ene pentsamenduen
sutan barneratua
karrikan ezker eta eskuin
hainbat eskulangile
hain antzetsu eta hain duin
Eta bat artisau langilea
arras balditu nauen
zapetagilea



Thierry Biscary (Anauze-1976)
kantari-musikaria.

Thierry Biscary gaurko euskal artista nagusietako bat dugu. Euskal Herriko hainbat talderekin aritu da besteak beste *Kalakan* hirukotean. Talde honekin eskarmentu artistiko desberdinetan parte hartu izan du soinulari klasiko batzuekin (*Freddy Eichelberger*, *Katia* eta *Marielle Labèque*...) edo nazioarteko pop munduko artista batzuekin (*Madonna*). 2018an, bere kantuekin osatutako lehen diskoa* plazaratu zuen Manez eta Kobreak izenburuarekin, musikari-kantari talde baten laguntzarekin. **Zapetagilea** abestia, disko horretan aurkitzen den lehen kantua da.



Zapeta onekin niz ibiltzen
egungoak erosi
nituen Miarritzen
hara non hauen berdin-berdinak
dituztan orai ene
aitzinean eginak
Loriaz gelditu niz begira
ene zapetak gizon
hunek eginak ote dira?
Zugana egin dute bidea
Mumbaiko espaloiko
zapetagilea

Munduak baditu mila gako
eta zure zapetak
ez dira enetako
Nahiago herrikideek eginak
Azkoitiko abarketak
Mauleko espartinak
Emanik zangoari zangoa
orai badakit non den
nihauren xokorat banao
Bakotxak xerka beza berea
Izan untsa Mumbaiko
zapetagilea

Hitzak: *Xabier Euskitze*
Musika: *Thierry Biscary*



Xabier Euskitze (Azpeitia-1966). Kazetari-bertsolari-idazlea.

Azken urte hauetan, kirol kazetari bezala gehien ezagutua da Xabier Euskitze, Euskal Telebistan hainbat urte baitu pilota partiden berri emaile kartsua dela. Nahiz eta gaur egun plazetan gutiago aritu, bertsolari handia dugu ere (1993 urtean, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian, bigarren postuan amaitu zuen).



*2020 urtean, *Muda* izeneko bigarren disko bat plazaratu zuen Thierry Biscaryk, aldi honetan bere izenean.

2022ko urte amaieratik, ONDAREA Hazparneko Historia Batzordea elkarte bilakatua da. Ordu arte, udaletxeko kanpo-batzorde bezala kontsideratua zen baina honek ez zion ezagupen juridikorik ematen. Gogoeta luze baten ondotik, erabaki hori hartu dugu gure ahalbide propioen zabaltzeko nahikariarekin, nagusiki zapatagintzari lotua den Hazparneko iragan industrialaz hasia dugun ikerkuntza sakontzeko eta garatzeko xedearekin, bereziki molde honetan :



- Dirulaguntza batzuk erdietsiz (kolektibitate desberdinengandik, Estaduarengandik eta beste...) Hazparneko iragan industrialia ezagutu duten herri eta hiri batzuetan ikerketa bidaia batzuen antolatzeko : Fougères, Saint André de la Marche, Romans sur Isère eta abar... Gogoeta horiek funtsezko ikerketa sakontzea helburutzat izan behar dute (eginak izan diren ikerketen lantzea, iragan industrial horien erkaketak bideratzea...) baina ere hiri horietako industrial memoria transmititzeko obratuak izan diren tresnen ezagutzea (interpretazio guneak, erakustokiak, deskubripen itzuliak, dokumentu pedagogikoak...);
- Hazparneko ikerkuntza egiten laguntzen ahal gaituzten instituzio eta erakundeekin partaidetzak finkatuz : Departamenduko Artxibategia, Euskal Kultur Erakundea, Eusko Ikaskuntza, Ikerketa elkarteak...;
- Unibertsitatearekin harremanak bideratuz, historia, etnologia, soziologia... sailetan ari diren ikasle batzuk libratuz ; molde batean edo bestean, funtsezko ikerketarako edo interpretazio arloan sakondu behar dugun gogoetarako, hoiien laguntza onugarria izango litzateke.

Guretzat, antolakuntza hautu honek ez du batere aldatzen Hazparneko Herriaren eta ONDAREA Historia Batzordearen arteko historiazko eta konfiantzazko harremana. Gure eskuzabaleko engaiamendua, gure herriaren ondarearen, oroz gainetik iragan industrialaren ezagupena haztea dauka helburutzat ; eta, gure neurri apalean, herentzia horren transmisioa bideratu beharko lukeen gogoeta amankomunean parte hartzea.



Hain zuzen, ONDAREAKo bi kideek parte hartu genuen 2023ko martxoaren 3an Paue eta Aturri Herrietako Unibertsitatean iragan zen estudio egunean. Hitzordu horren gaia zen « Industrial ondarea, kultura eta ekonomia mendi eta landaguneetako eremuetan ». Kolokio gogo-pizgarria, kalitatezko mintzaldi batzuez osatua. Hitzaldi batek bereziki markatu gaitu : Bankako Michel Oçafrain auzapezarena, eta meategiei buzuzko Olhaberri Interpretazio Zentroaren animatzailea den Mikel Indorena. Hazparnerentzat adibide eredugarria, zientifikoen, hautetsien, jendetzaren arteko gogoeta partekatu bat zer den jakiteko, bai eta ondare eta historia transmisio bati buruzko ikusmen erakargarria.

ONDAREA, Hazparneko Historia Batzordeko
helbide elektroniko berria:
histoire@ondarea-hazparne.fr

Zapat(h)ari* egitasmoaren ildotik, ONDAREA Hazparneko Historia Batzordea zapatagintzari lotua zen Hazparneko iragan industrial funtsez ikertzen hasia da. Jakinez mende batez pasa, iragan horrek Lapurdi barnealdeko hiri ttiki horren nortasuna moldatu duela.

Nahiz ikerkuntza horren hastapenean gauden, ondare paregabe horren balorapena oraidanik gogoetatu behar dela uste dugu.

Horretarako, gogoeta hori bideratuko lukeen epe ertain zein luzeagoko ikusmen bat ukaitea beharrezkoa iruditzen zaigu.

ONDAREA Hazparneko Historia Batzordea **Hazparnen Zapataren Etxe** baten sortzearen alde agertzen da.

Gune hori interpretazio zentro bat izan behar dela pentsatzen dugu, ez erakustoki bat. Itxura bizi, moderno, erakargarri eta aldakor bat izan behar du. Jakitateari irekia, jendeek beren historia beregana dezaten ahalbidetu behar du. Bestalde, tresna horrek etorkizunean proiektatzen lagundu behar gaitu, krisi sozial, ekonomiko, ekologikoaren testuinguruan gaurko garapen ekonomikoak dituen erronka nagusiei begira.

Lekuko jendetza guziarentzat asmatua izan behar da, besteak beste eskolako eta oro har hezkuntza sailekoentzat, baita kanpokoentzat ere, horien kuriostasun eta interes pizgarri izanez.

Hazparneko Historia Batzordeak gogoetaldi hori Hazparneko Herriko Etxearen ardurapean oraidanik bideratu behar dela pentsatzen du. Horretarako, hautetsi, ondare bitartekari, ikerlari, biztanle... batzuk bilduko lituzkeen lantalde bat xutik ezartzea beharrezkoa zaigu. ONDAREA, Hazparneko Historia Batzordea gisa horretarako desmartxa batean parte hartzeko prest da. Hazparnek erdietsi berri duen Biharko Hiri Ttiki labela gogoetaldi horren bultzatzaile aproposa izan liteke.

Gainera, historia hori argi lezakeen edozein antolamendu osagarri –adibidez, lantegi ohien deskubripen zirkuitu bat– ez da tarrapata batean obratu behar. Horretarako, anitz informazio fidagarri eskas ditugu, eta oroz gainetik, horrelako proiektuak ikusmen orokor horretan kokatu behar dira. Edozein obratze egin baino lehen, tokiko ikerkuntza sakondu behar dugu, baina ere estudio bisita batzuk antolatu, Hazparneren antzeko historia ezagutu eta molde batean edo bestean ondare horren transmisioan engaiatu diren beste hiri batzuetan. Formakuntza saioak antolatu behar ditugu. Gure ustez, gauzak ordenan egiteko astia hartu behar da. Jakinez hamarkadetan Hazparneko iragan industrial hori estalia izan dela, ondarezko balorapen onuragarri baten aitzakian historiaren sorkatzeak ez luke balio izpirik.

ONDAREA, Hazparneko Historia batzordea.
2023ko ekainaren 10a

*Zapat(h)ari proiektu antropologikoa eta artistikoa izan zen, Euskal Kultur Erakundeak eta Giza Zientzietako Goi Mailako Ikasketen Eskolak antolatua, "Euskal Etnopoloa" labelaren baitan, Clarenza kultura Zentroarekin eta Hazparneko Hiriarekin partaidetzan.